

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak foru-araudira eraman du baliabiderik gabeko hartzekodunen etxebizitzak ordainean ematea

*Zenbait zerga arautuko duen foru-legea proposatu du, Espainiako
Gobernuak onartutako Errege Dekretu Legearen arabera*

Miércoles, 28 de marzo de 2012

Nafarroako Gobernuak gaurko saioan foru-lege bat onartu du eta, haren bidez, martxoaren 9ko 6/2012 Errege Dekretu Legetik sortutako neurri fiskalak Nafarroari ezartzen dizkio, baliabiderik gabeko hipoteka-zordunen babesteko premiazko neurriei buruzkoa.

Errege Dekretu Lege horrek hipoteka-exekutatzeko prozedurak malgutzeko mekanismoak ezartzen ditu bere ordainketari erantzuteko aparteko zailtasunak dituzten pertsonen kaleratzea arintzeko.

Neurri horiek izan ahalko dira: hipoteka-zorren berregituratzea kapitalaren amortizazioan gabealdi baten bidez eta interes-tipoak murriztea zor guztiaren gaineko kitan edo, azkenik, ohiko etxebizitza ordainean ematea hipotekako zorra osorik kitatzeko tresna gisa.

Merkataritzako xedapen horiekin batera, Errege Dekretu Lege horrek fiskal-mailako beste neurri batzuk ezartzen ditu, eta haien helburua da baliabiderik gabeko zordunari Errege Dekretu Lege horretan dauden malgutasun-neurrietako bat hitzartzean sortuko zen zerga-karga kentzea. Eragiten diren zergak dira: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga eta hiri-izaerako lursailen balioaren gehikuntzari buruzko zerga.

Zehazki, Foru Gobernuak gaur onartutako Foru Legearen proiektuarekin lau neurri sartzen dira. Lehenik eta behin, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokionez, ordainean ematea dakarren finantza-erakundeari etxebizitza eskualdatzeak eskualdatzailearen ondarean aldaketa dakarrenez, hala badagokio, sortzen den ondarearen gehikuntzari buruzko salbuespen bat ezarriko da.

Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagokionez, salbuespen bat ezartzen da "dokumentatutako egintza juridiko"-en kontzeptuaren gainean, sor daitezkeen kreditu eta



Babes ofizialeko etxebizitzak.

hipoteka-maileguen kontratu-berritzeak gauzatzeko eskritura publikoetarako.

Hiri-izaerako lursailen balioaren gehikuntzari buruzko Zergari dagokionez, ezartzen da ordainean emandako etxebizitzaren erakunde hartzaileak zerga hori ordaintzera behartuta egongo dela zergadunaren ordezkoren kontzeptuan, hari ez diolarik eragingo kargaren kopuruak.

Azkenik, finantza-erakunde hartzekodunari "bazterketaren atariaren" barnean hipoteka-zordunaren kalifikazioa ahalbidetzen duten egoeren lehia errazteko, Nafarroako Zergen Ogasunak norberaren konturako langileari dagokion ziurtagiria emango dio, bai eta errenta-ziurtagiria ere azkeneko zerga-ekitaldiarekin alderatuz.

Gobernuaren gaurko saioan onartutako Foru Legearen proiektua zuzenean izapidetuko da eta irakurketa bakarrean Nafarroako Parlamentuan. Araua indarrean sartuko da Nafarroako Aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.